

Saguaren habia

ANJEL LERTXUNDI



BADA euskal asmakizun edo tipitaki bat, polit askoa, ezina definitzen duena: katuaren belarran, saguak habia. Gure supazterreko artista anomoa, ordea, ezin zuen inajinatu berak ezintzat jo zuena egunen batean egia berdadera hilakatu zena eta hona orain non EAJ mitxiñoaren belarran PSOE saguak habia jarria daukan eta Buesak, habiako sagukumeen artean bixienak, mitxiñoari hozka egin dion erren belarran erdi-erdian, ez dugun lekukook maramiaul handirik entzun.

Egia aitortzeko, erreakzioaren bat antzeman diogu mitxiñoari: konposturak agintzen duen neurri horaraino dardarazi zaizkio bigote tenteilak eta esan du, esan, miaul, eta miau horren babeserako lege bat badagoela eta, dagoen artean, kunpliarazi egingo duela.

Nik, eszena harrigarria ikusi ondoren, ondorioztatu atera dut kaniua defentsiban dagoela. (oposizioan, behar bada), defentsiban dagoenak bakarrik egin bait dezake halako adierazpide errukarri bat, baloia kendu berri zaiton hauraren jarrera temosa ere erakusteko kemenik gabea.

Baina katuari ez zaio, antza, batere deseroso belarran daukan habia. Kilimnak egiten dizkio, eta maite-maite, eta kutxi-kutxi, sagu nagusiak.

Orain mitxiñoak lepoa edertu nahi luke: Jolines-miau, zuek Sevilla eta Bartzeloga eta Madrid? Zer gatik ez guk Bilbo? Laster prestatuko zaio sagua: denbora asko baino lehen jarriko du mitxiñoaren lepoan kaskabela, ezinaren bertsio ez-euskalduna.

Sagu txiki, sagu maiteeee! kantatzen hastea faltako zaio mitxiñoari. Maramiaul!

EL PAIS

Golkoko gerraren bigarren buelta

FIS alderdiaren garaipena -Aljeriako islamismo ortodoxoaren alderdi arabiar munduan inoiz egin diren hauteskunde demokratikoetan, Golkoko gerraren bigarren buelta da. (...)

Arabiar munduaren zati handi batek, eta horren barruan, modu esanguratsuan, FIS alderdiari boto eman zionak, Golkoko gerra gizarte islamiararen eraso zela ulertu zuen, Irakeko lehendakaria den Saddam Hussein ez izan arren ordezkariik onena. Aljeriako hauteskunde emaitzak baliogabetzea, beraz, eraso horren jarraipen gisa ikusiko litzateke, baliogabetze horretan hurbileko agenteak bertakoak izan arren.

egin

Tentsioa

Benetan, gaurko EAJ ez da lehen izan zena. Bestela Espainiako eskuineko eta PSOEko ordezkariak ez zioten horrenbeste gorespen eskainiko bere azken kongresuari, eta ELAk ere ez zuen gogorazari beharko sindikatuak «kontu ikaragarria eduki duela alderdi abertzale bakar baten aurka balorazio negatiborik ez egiteko». Ezinezkoa da pentsatzea janik agian EAJ Espainiako Estatuak —edo EK-k— Euska-

HEMEROTEKA



«Mesede, hau al da Hunosaren barrikada?». «Ez, seme; hau Apezpiku Konferentziarena da». FORGES / EL MUNDO

dim inposatzeko behar duen alderdia dela eta ez herri honi dagokion burujabetza lortzeko euskaldunok behar duen alderdia.

J. IRATZAR

EL DIARIO VASCO

Aurrekontuak eta EITB

Eusko Legebiltzarrak joan zen osteguneko EAJ, PSE-PSOE eta EEren botoekin, Jaurriaritzari urte honetako Aurrekontuak itzultzearen aurka ateratu zen. Oposizioari ez zitzaion geratu be-

re egonezina azaldu eta Exekutiboari inbertsio handiagoa eta gastua txikitzea eskatu baino. PP, eta EUEK gastua txikiagotzearen aldeko apustua egiten dute, eta behar izanez gero programazio murriztearen aldekoa, kalitate hobetu eta euskal telebistaren bigarren katea ixteko posibilitatea ikertzeko.

ALBERTO ARTIGAS

ABC

ETA eta bere lagunak

Gonzalez lehendakariak Cartagena

de Indiatetik esan du «akats dramatiko dela, hiltzaile talde batekin paktu politiko baten itxaropena izatea».

Baina oharpenaren egokitasunari falta zaiona da onartzea Gonzalez berre jausi zela «akats demokratiko» horretan;

«Bekatu aljeriaren» alderdi sozialistaren terrorismoaren aurkako sineset faltarren itzal kezkarria sortzen du eta ETAk Estatuaren borondatea marku ezazteko erabaki ilusiozkoaren sustraian dago.

EDITORIALA

No pasa nada

TXILLARDEGI



BADAKIZUE nork esan zuen hori, eta non. Isil nadin. Hemen ere garrasi bera ari da hedatzen: «Aquí no pasa nada». Eta zehaztapena etorri ohi da segidan: «Están ahí los violentos, eso sí; aunque cada vez más aislados»...

Eta egia saindua da. Behinola gudariak eta gero beste hamaika aberkide borrokarak eraman zituen helburua ('Euskadi Askatua', alegia) gure begien aurrean ari da mamitzen. Lasai, mutilak!

Iparraldea eta Hegoaldea gero eta batuago daude. Nafarroa eta Baskongadak, bide beretik, batasun osoan ari dira maila guzietan. (Alii Euskaltzaindiko bulegoetara azaltzeko, adibidez, ez du inor ere harritu: mundu guztiak baiaki, eta beti ere gogoan atxekitzen. Bonapartek egindako saikapean, zortzi euskalkitak lau direla nafartarrak). Eta izendapenetan (Buesa-arena, adibidez) garbi ikusten da PNVak bedekitzen dituen gizonetan, euskalduntasuna eta euskaltzalesuna oinarritzko arazoak direla. Corcuera-legea horregatik txalotu zuten PNVak: demokraziaren berme eta baradera delako. Egun hautantxe, Aieteko detentzioetan, are Errektore-orde baten etxean xeru-xeru sartzean, garbi azaldu da fazismoaren garaiko basakeriak gaintuta daudela. Erabat.

Fernando Fernández de Savater argiak, berriro ere bilduma argitsua eginez aldarrikatu berri omen duenez: «Aquí no pasa nada. Quedan los violentos. Quedan esos nacionalismos periféricos de buena y silbote. Ahora vemos, en Yugoslavia, en la lamentablemente fenecida Unión Soviética, lo que son los nacionalismos. Moscú y Belgrado, que nunca habían roto un plato, se encuentran ahora con las hordas de batasunos del Este»... Jakina!

LUZENDARIARI

Nafarroa ez da Euskadi

Joan zen igandean Donostiako Victoria Eugenia antzokian Euskal Herriko Bertsolarien Elkarteak Hermandorena, Izeta eta Larre jaunei eskaini omenaldian, Nafarroa Garaiko 'Principe de Viana' kultur erakundeak arduradunak, Javier Zubiaurrek, gaztelerez hitza hartu zuenean gertatu zenaren aurrean, nire ez adostasuna azaldu nahi dut.

Zubiaurrek zeramana adierazteko leku, momentu eta luzera egokiena aukeratu ez bazuen ere —eta hala adierazi zitzaion aurrez—, Nafarroa Garaiko ordezkari politiko bezala bezalagokia eta zekien gisan azaltzeko eskubidea izanen zuen, nik uste. Eztabaidagarria izan liteke egin zuenak neurria non ote zuen, entzule zenbaiten erantzuna eztabaidagarria den modu berrean.

Afera gaztelerez egin zezala izan bazen, ihardetsi ziotenen aldetik erantzutekoa ez zen inola ere txistuka eta «Nafarroa Euskadi da» oihuka hastea. Izatekotan, «Euskal Herrian Euskaraz» ihardestea izan zitekeen. Dena den, Zubiaur jauna erdaldua da, gure herrialdeko bizilagunetan %

90 erdalduak diren bezala. Beraz, oso fabore gutxi egin dio gertatuak Nafarroa Garaian eta beste herrialdeen arteko harremanak hobetzearen aldeko jarraitari, noiz eta Hego Euskal Herriko bi autonomia aldeko jarraitari, noiz eta Hego Euskal Herriko bi autonomia erlazioak desdramatizatzen hasiak direnean. Izan ere, lehen aldia bait zen hain maila altuko nafar ordezkari bat Euskal Herri osoko bertsu saio batean azaltzen zena.

Igandean omentzen zituztenei zori diodan begiruneagatik, leku eta unerik aproposena ere ez izateagatik eta giroa gehiago ez mikazteagatik, bota nituen bi bertsoen aurretik esan ez nuena orain diot: Euskal Herria bada, baina Nafarroa ez da Euskadi.

PABLO JOSE ARISTORENA Iruñea

Paz y Reconciliación

Txillardegia jaunak 1992ko urtarrilaren 7an EGUNKARIAN idatzitako artikulua nahiko minduta utzi nau. «Paz y Reconciliación — Pakea eta Adiskidetasuna egin» elkarrearen aurka lasai aritzen da

goizkiesanka eta ez zait iruditzen modu egokian mintzatzaren denik.

Nire iritziz «Pakea eta Adiskidetasuna egin» jorkaera, jokaera jatorra da. Eta jokaera horrekin adierazi nahi da, gure herriaren arazoa, ez dugula biolentziaren konpondu egia eta biolentziak gelditu egia behar duela; eta pakea eta elkartasunaren eremutik konpondu ditzakegula arazoak.

Adiskidetasunak elkar ulertzea esan nahi du, adiskidetasunak ez du adierazten bat ona eta beste txarra denik, bat zuria eta beste beltza denik, elkar ulertu eta elkarren artean gauzak konpondu behar direla baizik. Arrazoa ez da sekula alde batean bakarrik egoten.


Txillardegik ez du Adiskidetasuna (Reconciliación) aipatzen eta nire ustez: horixe dago gakoetako bat.

Nire lagun Txillardegia, erabiltzen duzun hizkera horrek ez du elkar ulertzen baretze laguntzen, alderantziz, oraindik ere gorroto eta ezirikusi gehiago sortzen du, eta hori kaltegarri eta tristea da.

XABIER HUIZI EGILEGOR

Hernani (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA



Odon Elorza

Urtarrilaren hogeii eguna da donostiarren poza gaueko hamabitako ezkilak alaitzen digu bihotza Danborradaren hasiera da ohitura zaharrak dun hotsa non zegoen Odon Elortza? hauteskundearen lotsa (Bis) herriko ikurrina altxatu zuten teitlatu goruntza atzo ikusi zen genekiguna zera alkate arrotza.

EUSEBIO LASARTE

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JUAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: INMA GÓMILA

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI LUZIAN ETXEZAHARRERA INARI URUA

Publizitatea: KORNELIO ROTETA



Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: Lasarte-Oria Industrialdea / Antza, 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / Telef: 37 07 38

Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20.010 Donostia / Faxa: 45 59 57 / Telef: 46 90 22

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / Telef: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / Telef: 17 80 78 79 / Faxa: 17 80 77

Gipuzkoa: Loiola, 14-1.3 / 20005 Donostia / Telef: 42 69 96 / Faxa: 42 93 18

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. ezker. / 48002 Bilbo / Telef: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / Telef: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11